



"GORUTZ" IZENEKO ARTISTA TALDEA

Eibarren, azken urte hoietsan goraketa storren arte giroak bere bide berriak iriki ditu. Izen ere. Zuloaga eta Olabe-ren denboratik lo egoan arte kerka, eta ba dirudi azken bolaran kementsu iratzartu dala. Aspalditik ari ziren artista gazteak beren lanetan erakusketa antolatzen. Club Deportivo-aren eta S. C. R. Arrate-ren babespean urtero bi edo hiru erakusketa egin izan dira herriko semeenbatzat; eta maizago herbestekoerik tokia utziar.

Ekintza honek, bere ondorengoko frutuz, nahi eta nahiakoa zuen artea errealdadearen kopiatzaileek estetika berrien sorketazko mugatara eramatea. Beti hala gertatu bait da.

Artista, bere barneko keskak egon ezineera bultzatzean, plastikaren bide berriak urratza joten du eta sorketa hartzen du helburu. Eta, Eibarren ere ezin zitekean bestera geratu. Era honetan, Eibarren, artean zorioneko bidietatik abiatu den eritzia dugu. Honean ez dugu dudarik, eta beren erabagiz Gorutz taldeak hartu duen bidea txalatu beharrean gara.

Lehengo talde orokorreketik eten dira -artearen jokabidez eten dira, elkarren arteko adiskidetasunak cutsi gabe-, eta hostz laguneko talde berezi ba osatzen dute "Gorutz" izenez. Hauek betetzen dute taldea: Paulino Larrañaga, Fernando Beorlegi, Iñaki Larrañaga, Mario Plaza eta Daniel Txopitea, beren adinesko ordenan.

"Gorutz" talde honek bere bultzatzaileak izan ditu, Eibarren artea aski heldua curkitzen denez, kasik beharturik bai zeuden holako erabagi bat hartzera, eta zenbait arte-zaileen kontseiluetatik aparte. Antxon Sarasaketa Pike's-eko suzendaria bates ere.

Bostok, elkarren artean, beresko izatera eta formazioz nahiko desberdin dira. Izen ere, ez dute elkarren antzerakoak izan beharrak, bakoitzak bere era eta bidea lantzen dute goruneko jo-mugetara. Elkarrekin biltzean, el-

karri laguntzea dakan: barnetikako kritikak egiteko, eskola librezko giroa indartzeko, erakusketa antolatzeko, eta abar. Eta horrela landu, bakoitzak bere bidean eta bakoitzak beretik urrutitako bideak era experimentallean aurerruntz urratuz.

Beren lanak, eginaldia. Astelena izeneko snack-barrean edo Pike's-ko diskotekan jartzen dituzte. Deban Koldo Azpiazu antolatzen ari den arte-eskolaren laguntzailea dira.

Hara taldea osatzen dutenan bereizkuntzak:

Paulino Larrañaga da taldeko zaharrena (edo nausiena). Eibarren esan ohi dan bezala, pintura eta zurean taillan egiten du. Adinak ere hortatzaten duela, gurtietan klasikoena da. Arteta eta euskal-eskola haren geratikoa eraz ari da. Esku azkarra benetan, eta bere lanak, ondo bukatuak baino gehiago gustatzen zaizkit erdir bukatuak, zeren halakoa bait da bere traso biskorra, mairi lanca bukatzean tapatzan duepa. Kolore ilunak ditu, gorrikoak edo urdinak inguruaz qiroturik egiten dituenean hobea iduritzan zaigu. Baitokizue zurezko tailletan dohain hebeekin agertzea. Estudio bat beretzen aparte jarri du. Bidobarieta kalean, eta izan diteke hau bera kalean, zeren bestegandik banatzean elkarren qirotik urrutitatzeko arriskoa bait du.

Fernando Beorlegi, taldeko eskolatuena, saizkera berriekin zeharo arduratua, beti bide berrien keskak eraqinda, urtetik urtera al-dakor. Bere azken saioak begien bistarako teknika era berriak estudiadiz da, pop-art eta pop-art-tik hasi eta harat abiatuaz. Bere lanak, burusko nekearen pisua nabari du, eta bere temperamenduari ez dio honek kalterik egiten.

Iñaki Larrañaga, isilik baina optimismoz beterik ari da, bere lana abstrazio hutsa da, sensitibilidaez beterik. Bere saizkerok surrealenekoak ditu. Maiz, pinturarekin eskultu-

ra nahasten du, bere estetika berrien bilaketan.

Mariano Plaza, pintura eta eskultura egiten ditu. Lotsatua eta bere buruari gutxietsia da. Ez da artean eskolatua eta ez da ausatzten bere gisako bideetatik abiatzen, eta ba du honetarako dohainik, sensitibilidae handikoa dana, haur-girozko gauza finak egiten daki. Baino batez ere modelatzeko esku beretikaz du, eta gure iduriz honetara gehiago itzuli behar litzake.

Daniel Txopitea, gurtietan gasteena; kementsuena ere bai noski. Etorrikizun zabalda du bereurrean. Adorrik etxiao saltza. Badaki artearen berri, eta estudiaduen jarraitzeko gogo bizka du. Danetatik entregatuena da, eta, gainera, bide segura batean goruntas ari da. Herrick uertzeko erara lan egin nahi du, irudibidez jardunaren astrazioa ingurutzen ditu irudiek. Bere sentimenterako ideiak adierazteko koloreak eta hauek eramateko erak gama batean giroturik agerrerazen ditu. Ondo ari da eta, hala ere, bere buruarentzat kontesta qitz za da. Beretzen hobe. Honek erakussten bait digu artista gazteak etorkizun oporatsua duela. Ona bada ere, fratu hoberik espero dugu beragandik.

"Gorutz" talde honek, Pagel kaleko ganbara batean du bere estudioa, Udaletxearrena da (Alutamendutxarea). On asko egiten diente tokiko hori uztean, baina uste dugu hori baino tokiko handiago eta egokiago bat merezi dutela.

Bestalde, talde honek, been erakusketaekin Eibarrik irten beharrak du. Beretutako batzuk parte hartu izan dute Donostia, Bilbo eta Gasteizko zentzuitasunetan, saritza ere sartu izan dira, baina beren indarra qartsuki ugertzeko ordua dute, eta beharrezko zaie, talde berezia, hiri hoietsan eta beste batzuetan erakusketa egitea; beren dohainak esagutzea emateko, mundu zabalerak azaldu beharrak dute, zeren profesionalizk aski bada basterretan hauek baino askozaz txarra gozak direnak. Beti txoko zuloan jardutzeak ez dio onik egiten artistari. Artistarentzat hestrik altuena, mugarik gozorenna, bere herriko da: inor ez omen da profeta bere herrian.

JUAN SAN MARTIN